AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1683

251/2013 EBAZPENA, otsailaren 19koa, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentearena, Luis Villoldo Ortega jauna Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Giza Baliabideetako zuzendariordearen kargutik kentzeko dena.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentearen martxoaren 11ko 105/2010 ebazpenaren bidez, Luis Villoldo Ortega jauna Giza Baliabideetako zuzendariorde izendatu zen aipatutako ospitalean.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

I.– Aintzat hartuta Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Ente Publikoaren Estatutuak onartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua, eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Luis Villoldo Ortega jauna Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Giza Baliabideetako zuzendariordearen kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2013ko otsailaren 19tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Pertsonal zuzendariari, eta Osakidetzako Giza Baliabideetako zuzendariari jakinaraztea.

Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari, idazki hau jasotzen denetik hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluek ezarritakoaren arabera.

Gurutzeta-Barakaldo, 2013ko otsailaren 19a.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentea,
SANTIAGO RABANAL RETOLAZA.